

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

IRIZPIDE GEOGRAFIKOAK

Espainian operatzen duten aplikazioak bilatzeko balio duten sistemetan publikatuko dugu eta publizitatuko dugu aplikazioa. Nahiz eta nazionalitate espainiarra ez izan Espainian bizi bazara gure zerbitzuak erabili ahal izango dituzu. Espainian dauden hizkuntza ofizialetan erabili ahalko da aplikazioa, eta apunteak hizkuntza hauetan egongo dira.

IRIZPIDE DEMOGRAFIKOAK

16-25 urteak duten ikasleak erabili ahal dute gure aplikazioa, baina irakaslea izan nahi baduzu gaiari buruzko ezagutza-maila minimoa izan behar duzu eta ahal bada, zure kapazitateak justifikatzen duen titulua ere.

IRIZPIDE PSIKOGRAFIKOAK

Ez du garrantzirik, gure zerbitzuak informazio objetiboa eta helburu eta sinesmen mota guztientzako pertsonentzat eginda dago.

IRIZPIDE SOZIOEKONOMIKOAK

Tresna elektronikoak erabiltzeko aukera duten pertsonentzat diseinatuta dago gure enpresa. Bezeroak era digitalean ordaindu behar du (edo haren gurasoak, tutoreak, lagunak...) *coins*-ak, Paypal, Bizum, VISA... erabiliz, bestela ez izango du produktuak erosi.